

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Iruña Okako Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko maiatzaren 31ko erabakiaren laburpena, zeinaren bidez deialdi publikoa egiten baita 2020-2021 ikasturtean Iruña Okako ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen elkarteek sustatutako eskolaz kanpoko ekintzak diruz laguntzeko

DDBN (Identif.): 568078

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/568078>).

(<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza deialdi honen onuradun izango dira Iruña Okako ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen elkarteak. Elkarte onuradunek derrigorrezko hezkuntza mailak ematen dituzten ikastetxeei lotuta egon behar dute.

Dirulaguntzaren onuradun izateko, gurasoen elkarteak kasuan kasuko elkarten erregistroan egon behar da inskribatuta (otsailaren 10eko 66/1987 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen gurasoen elkarteak arautzen dituena).

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen xedea da sustatea Iruña Okako ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen elkarteek aktiboki parte har dezaten eskola prozesuan, eta hortik sortzen diren gastuak finantzatzen laguntzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Iruña Okako Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zituen 2021eko maiatzaren 31n eta udalaren web orrian argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

7.000 euroko aurrekontu esleipena dago jasota 2021eko udal aurrekontuaren 326.434.000 partidan, dirulaguntzaren xede diren jarduerak garatzeko.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Iruña Okako ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen elkarteek deialdian parte hartu nahi badute, dagokion eskaera aurkeztu beharko dute, baldintza hauen arabera:

5.1. Aurkezteko epea: deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 2021eko irailaren 15era arte, egun hori barne.

5.2. Aurkezteko lekua: Iruña Okako Udalaren bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutako moduan.

Iruña Oka, 2021eko ekainaren 4a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ